EIBARKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZETARAKO PLAN ESTRATEGIKOA.

ATARIKOA.

Oinarrizko izaera du azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1. artikuluak, beraz, diru-laguntzak eman nahi dituzten Udal guztiek dute Diru-laguntzetarako Plan Estrategikoa onartu beharra.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzetarako Lege Orokorrak, beste urrats bat gehiago ematen du sistema ekonomikoaren hobekuntzan eta arrazionalizazioan. Legea sustraitzen duen printzipioetako bat gardentasunarena da, eta horrek, Legean hezurmamitzen diren beste baliabide askorekin batera, bere baitan dakar diru-laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun maila zuzenean igotzea.

Alde horretatik esan behar dena da merkatuari eragin liezaioketen distortsioak eta interferentziak kentzeko modua egongo dela diru-laguntzen inguruko informazio gehiago edukiz gero eta, horrezaz gain, Administrazio Publiko guztietako jardueren koherentzia eta osagarritasuna erraztu eta mota guztietako teilakatzeak galaraziko lirateke.

Legediak berak dio Diru-laguntzetarako Plan Estrategiko bat egin behar dela eraginkortasuna hobetzearren, urte anitzeko Plana, Udalbatzak egin ditzakeen lankidetza-hitzarmenak egiten edo diru-laguntzak ematen hasi baino lehenago egin beharrekoa; Diru-laguntzetarako Ordenantza Orokorrak aurreikusitako terminoetan egin ere.

Horregatik onartzen du udal honek Diru-laguntzetarako Plan Estrategikoa. Hona hemen Plan horren atal multzoa:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. ARTIKULUA.

Udal honek 2015-2017 aldian xedatuko dituen diru-laguntza guztiak lotuta geratuko dira honako Plan honetan ezarritakoari.

2. ARTIKULUA.

Plan honetan ezarritako diru-laguntzak benetan xedatzeak eskatzen duena da: urte bakoitzeko udal Aurrekontuetan diru-laguntza horiei dagozkien diru-izendapenak egitea eta diru-laguntzok emateko oinarri arautzaileak onartzea.

3. ARTIKULUA.

Diru-laguntzak xedatzea aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzearen menpe dago, beraz, helburu horietara moldatu edo egokituko dira une bakoitzean

aurrekontuetan onar daitezkeen diru-izendapenak eta diru-laguntzok emateko oinarri arautzaileak edo/eta deialdiak ere.

4. ARTIKULUA.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du esan nahi inongo eskubiderik sortzen denik onuradun izan litezkeenen alde; halako moldez, non ezingo duten inongo kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu Planak dioena gauzatzen ez bada.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK ETA DIRU-LAGUNTZA ALORRAK

5. ARTIKULUA.

Erabilgarritasun publikoko edo gizarte-intereseko ekimenak egin daitezen bultzatzea edo toki-eskumenari egozten zaizkion helburu publikoak lor daitezen sustatzea helburutzat hartuta, udalak diru-laguntzak emango dizkie norbanakoei, elkarteei edo entitate pribatuei.

6. ARTIKULUA.

Udalak, urtero, Plan honen Eranskinean adierazten diren alor horietarako emango ditu diru-laguntzak.

IIII. KAPITULUA. PLANAREN KONTROLA ETA EBALUAZIOA.

7. ARTIKULUA.

UDAL KONTU-HARTZAILEAk egingo du Plan honen finantza-kontrola, plana indarrean dagoen aldi guzti horretan.

8. ARTIKULUA.

Planaren indarraldia amaitu ondoren eta hurrengoa egiten hasi aurretik, diru-laguntza lerro ezberdinak sustatzen dituzten sailetako arduradunek Memoria bat aurkeztu behar diote diru-laguntzak ematen dituen organoari; eta Memoria horretan, gutxienik, hauxe islatuko dute: Planaren betetze-maila; lortu nahi ziren helburuak eta ondorioak lortzeko diru-laguntza emateak izan duen eraginkortasuna; eta, azkenik, ondorioak. Baita hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak egin ere.

Eibarren 2015eko otsailaren 4an

ALKATEAK

ERANSKINA

KULTURA ETA KIROL ALORREKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: KULTURA SAILA.

Kultura alorrean, Udalak, Plan Estrategikoaren indarraldian, ondoko diru-laguntza lerro hauek ezarriko ditu:

DIRU-LAGUNTZA LERROA.	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK.	URTEKO KOSTUA.	FINANTZAKETA.	DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.
HELBURUA: Kultura-ekitaldien urteko programa (hitzaldiak, tailerrak eta erakusketak). ONURADUNA: ARRATE KULTUR ELKARTEA.	- Laguntza ematea hitzaldiez, tailerrez eta erakusketez osatutako jarduera-programari.	- Arrate Kultur Elkartearen kultura-jarduna eusten laguntzea. - Herriko kultura-programa aberastea Arrate Kultur Elkarteak antolatzen dituen erakusketekin, tailerrekin eta hitzaldiekin. - Komunikazioa erraztea artisten, arte-diziplinen eta guneen artean.	2.250 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da, Aurrekontuko IV. Kapituluaren kargu.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Urteko jarduera programa: ONURADUNA: Ikasten. Esperientziaren Eskolako Ikasleen Elkartea.	- Erretiroa hartua duten pertsonak parte-hartzea.	- Pertsona nagusiek kultura-programetan parte har dezaten sustatzea. - Pertsona nagusien esperientziaz baliatzea kultura-programak egiteko. - Pertsona nagusiei zuzendutako ekitaldiak antolatzea -hitzaldiak, mintzaldiak, irteerak...- beren esperientzia hori programetan isla dadin.	7.350 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Ekitaldiak antolatzea Urteko Biltzarraren inguruan. ONURADUNA: Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartea.	- Sinergiak sortzen laguntzea Armeria Eskolako ikasle ohiak, hezkuntza-mundua, udala eta enpresa, horiek denak elkartuta.	- Topaketak antolatzea Armeria Eskolako ikasle ohien esperientzia azaltzeko. - Enpresa-, kultura- eta hezkuntza-munduak elkar hartuta, udalerrian batera aritzeko guneak sortzen laguntzea. - Armeria Eskolako ikasle ohien parte hartzea bultzatu udalak	1.080 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.

		antolatzen dituen ekintzailetza jarduera guztietan.			
HELBURUA: Eibar rebistia kaleratzea. ONURADUNA: "Eibar Revista de un Pueblo" elkartea.	Eibarko udalerriko kultura-, gizarte- eta enpresa-bizitzaren inguruko informazioa ematea.	- Eibar rebistiaren edizioa babestea. - Eibarko udalerriko kultura-, gizarte- eta enpresa-alderdien inguruko informazioa ematea.	1.350 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Urteko dantza jarduera programa. ONURADUNA: Eibarko Klub Deportiboa.	- Euskal dantzaren inguruan udalerrian antolatzen diren jarduerak babestea.	- Eibarko Euskal Jaia antolatzen laguntzea. - Dantza Eskolari lagunduta, udalerriko umeei euskal dantzak erakustea. - Udalerrian euskal dantza talde bat izatea, dantza-jaialdiak antolatu eta udalerriko kultura- eta jai-jardueretan parte hartuko duena. - Udalerriko kultura taldeek herriko jardueretan parte har dezaten sustatzea.	27.900 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Aire zabaleko margo lehiaketa antolatzea. ONURADUNA: Eibarko Artisten Elkartea.	- Udalerrian, aire zabaleko margo lehiaketa ireki bat antolatzea.	- Sorkuntza plastikoa sustatzea udalerrian. - Lehiaketen bidez artista berriak ezagutaraztea.	2.700 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: "Exfibar" Filatelia Erakusketa antolatzea. ONURADUNA: *Arrate* Elkarte Filatelikoa.	- Kalitatezko filatelia-erakusketa bat antolatzea.	- Urtean behin, kalitatezko filatelia-erakusketa bat antolatzea. -*Arrate* Elkarte Filatelikoaren lanari babesa ematea.	1.125 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Gabonetako Eskulangintza Azoka antolatzea. ONURADUNA: Eibart Elkartea.	- Gure udalerriko eta eskualdeko eskulangileek egiten duten lana ezagutaraztea.	- Eskulangintza azoka bat antolatzea, tailerrak eta lan-erakustaldiak barne. - Leku bat sortzea, udalerriko eta eskualdeko eskulangileek beren lanak merkaturatu ahal izan ditzaten. - Udalerrian eta eskualdean egiten diren eskulanak erakustea.	2.700 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.

HELBURUA: Film Laburren Jaialdia antolatzea. ONURADUNA: *Plano Corto* Elkartea	- Film laburren jaialdia antolatzea errealizadore hasiberrien lanak erakusteko.	- Errealizadore ekin berrien edo hasiberrien film laburrak erakustea. - Errealizadore hasiberriek egindako ekoizpenak hedatzea edo zabaltzea. - Tokiko eta eskualdeko errealizadoreen parte-hartzea sustatzea film laburren lehiaketan.	900 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: *Argazkilaritza maiatzean* jarduera-programa antolatzea. ONURADUNA: Eibarko Klub Deportiboa.	- Argazkilaritzaren arte-eremuko proposamenak zabaltzea udalerrian.	- Erakusketak antolatzea izen eta ospe handiko argazkilarien lanak erakusteko. - Udalerriko eta eskualdeko zaletuendako argazkilaritza tailerrak eta ikastaroak antolatzea.	3.500 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Valenciagaren Oroimenezkoa txirrindularitza lasterketa antolatzea. ONURADUNA. Eibarko Txirrindulari Elkartea.	- Entzute handia duen afizionatu mailako txirrindularitza lasterketa antolatzea.	- Entzute handiko kirol ikuskizun bat antolatzea, txirrindulari berri on askoak ezagutarazteko. - Parte-hartzea eta elkarketa sustatzea.	8.100 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Duatloi lasterketa antolatzea. ONURADUNA: Eibar Triatloi Taldea.	- Duatloi lasterketa bat antolatzea.	- Duatloi lasterketa antolatzea, non herriko kirolariek zein kanpokoek parte har dezaketen.	1.100 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Zaletuen arteko Futbol Txapelketa antolatzea. ONURADUNA: *Unbe* Futboleko Kirol Taldea.	- Kirol praktika eta lehia aisatzea futbol zaletuengan.	- Hiriko futbol jokalari zaletuen txapelketa antolatzea. -Zaletuek kirol lehiaketatan parte har dezaten sustatzea.	1.600 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: *Eibarko Hiria* Judo Txapelketa antolatzea. ONURADUNA: *Kalamua* Judo Taldea.	- Judoko kirol saioak antolatzea.	- Judo txapelketa antolatzea, non herriko kirolariek zein kanpokoek parte har dezaketen.	600 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Gabon Zahar eguneko edo Urtezaharreko Krosa antolatzea.	- Kirol lasterketa batekin ospatzea Urtezaharra .	- Jende guztiak parte hartzeko atletismo proba bat antolatzea. - Kirolean parte-hartzea	600 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV.	Diru-laguntza mota: izenduna.

ONURADUNA: EIBARKO KLUB DEPORTIBOA		sustatzea.		Kapituluaren kontura.	
HELBURUA: Herriarteko Pilota Txapelketa antolatzea. ONURADUNA: EIBARKO KLUB DEPORTIBOA	-Pilotan jokatzeko zaletasuna sustatzea.	- Pilota txapelketa bat antolatzea. - Eibarko pilotarien lana zabaltzea.	550 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Gimnastika Erritmikoko Eskolarteko Txapelketa antolatzea. ONURADUNA: *Ipurua* Gimnastika Erritmikoko Taldea.	- Gimnastika Erritmikoaren praktika sustatzea.	- Kirolean emakumeen parte-hartzea sustatzea. - Gimnastika Erritmikoko kirol proba bat antolatzea, gimnastikako eskola guztiekin.	800 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: *San Andres* Gimnastika Erritmikoko Txapelketa antolatzea. ONURADUNA: *Ipurua* Gimnastika Erritmikoko Taldea.	- Gimnastika Erritmikoaren praktika sustatzea.	- Euskadiko gimnasta onenekin saio bat antolatzea. - Kirol praktika sustatzea emakumeen artean.	1.800 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Emakumeen Judo Txapelketa antolatzea. ONURADUNA: *Kalamua* Judo Taldea.	- Judoaren praktika sustatzea.	- Euskadiko judoka onenekin saio bat antolatzea. - - Kirol praktika sustatzea emakumeen artean.	600 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: *Asier Cuevas* herri lasterketa antolatzea. ONURADUNA: EIBARKO KLUB DEPORTIBOA	- Herri lasterketa bat antolatzea.	- Kirol praktika sustatzea. - Kirolari afizionatuen parte-hartzea lortzea.	1.100 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Urteko jarduera programa: ONURADUNA: *Maite Goruntz* Korua.	- Emakumeen parte-hartzea sustatzea musika-jardueretan.	- Kontzertu-emanaldiak sustatzea. - Koru edo abesbatzetan emakumeek parte har dezaten sustatzea.	675 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Urteko jarduera programa: ONURADUNA: Sostoa Abesbatza.	- Musika-jardueretan kantarien parte-hartzea sustatzea eta bultzatzea.	- Kontzertu-emanaldiak sustatzea. - Helduen parte-hartzea sustatzea musika-jardueretan.	5.580€	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Dia das Letras	- Eibarren, Dia das Letras	- Galiziako kultura eta ohiturak	5.040 €	Finantzaketa funts	Diru-laguntza mota:

Galegas antolatzea. ONURADUNA: “As burgas” Galiziako Kultura etxea.	Galegas ospatzea.	Eibarren ezagutaraztea. - Hirian bizi diren gailegoen artean jarduerak antolatzeko ohitura sustatzea.		propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	izenduna.
HELBURUA: Bien Aparecidako Amabirjinaren jaia antolatzea. ONURADUNA: Casa de Cantabria elkartea.	- Kantabria Erkidegoko kultura adierazpenak ezagutaraztea.	- Kantabriarren ohiturak eta kultura ezagutaraztea Eibarren. - Hirian bizi diren kantabriarren artean jarduerak antolatzeko ohitura sustatzea.	2.490 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
Lambretta motozaleen elkarretaratzea. ONURADUNA: Lambretta motorraren Eibarko lagunen elkartea.	- Lambretta motorrak herrian egiten zirela gogora ekartzea.	- Lambretta motorraren motozaleen elkarretaratzea. - Jai giroko ekitaldi bat antolatzea Lambretta motorren inguruan.	1.380 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Herriko taldeen urteko kontzertu-emanaldia antolatzea. ONURADUNA: Eibarko Musikari Gazteen Elkartea.	- Herriko musika-taldeek daramaten jarduera hedatzea.	- Musika-emanaldi bat antolatzea Eibarko musika talde eta bandekin. - Herriko musika-talde berriak sustatzea.	1.125 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Futbolzaleen peñak elkartzea. ONURADUNA: ESKOZIA LA BRAVA futbol zaleen peña.	- Kirol taldeetako zaletuen arteko harmonia sustatzea.	- Futbol zaleen peñen topaketa bat antolatzea. - Beste talde batzuen zaletuekin eta futbol peñekin harmonia edo adiskidetasun balioak sustatzea.	810 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Jaietako kartel lehiaketa. Aratosteak, San Juan jaiak eta San Andres jaiak.	- Arte-sorkuntza sustatzea eta Eibarko jaien zabalkundean artisten parte-hartzea bultzatu.	- Sorkuntza plastikoa eta diseinua sustatzea jaietako kartelak aukeratzeko lehiaketak eginda. - Artistek parte har dezaten sustatzea.	2.400 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.
HELBURUA: Umore kutsuko eranskailu lehiaketa, jaietako larregiko alkohol kontsumoaren kontrakoa.	- Arte-sorkuntza sustatzea eta drogamenpekotasunari aurrea hartzeko kanpainetan artisten parte-hartzea bultzatzea.	- Sorkuntza plastikoa eta diseinua sustatzea eranskailu lehiaketa baten bitartez. - Jaietan, larregiko alkohol kontsumoari aitzintzea.	270 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.
HELBURUA: *Indalecio Ojanguren* Argazkilaritza Saria.	- Argazkilaritzaren diziplina artistikoaren sorkuntza	- Argazki-sorkuntza sustatzea eta Indalezio Ojanguren	2.500 €	Finantzaketa funts propioekin egingo	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.

	sustatzea.	argazkilari eibartarra oroitaraztea.		da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	
HELBURUA: *Asier Errasti* film laburren lehiaketa – *Javier Aguirresarobe* Sariak.	- Zinemagintzaren diziplina artistikoaren sorkuntza sustatzea.	- Zinemagintza sustatzea film laburren lehiaketarekin. - Eibarren Film Laburren Jaialdia antolatzea.	3.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.
HELBURUA: Udalerrian kirol jarduerak antolatzea.	- Kirol ariketa sustatzea, horretarako jarduerak eta kirol programak garatuta.	- Kirol mota guztietako kirol ariketa sustatzea Eibarko herritarren artean. - Herritar guztien kirol praktikari mesede egitea. - Kirol elkarketa goratzea Eibarren. - Bizi-kalitatea hobetzea kirola eginez. - Kirola egitea eta kirol ohitura osasungarriak sustatzea; baita eibartarren artean parte-hartzeko kultura ere, kirola eginez. - Kirol entrenatzaile eta lizentzia gehiago izatea. - Aisialdian, kirol mota guztietan aritzeko ohitura zabaltzea.	75.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.
HELBURUA: Ohiz kanpoko izaera duten kirol txapelketetan parte hartzeko laguntzak ematea.	- Kirol emaitza onak izateagatik, ohiz kanpoko txapelketa berezietara joateko diru-laguntza ematea.	- Eibarko kirol entitateek, emaitza onak lortzean Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren txapelketetara joan beharra dutenean, ezohiko joan-etorri horiek diruz laguntzea.	6.500 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: ebaluazio bakoiztua

PRESTAKUNTZAREN ETA SUSTAPEN EKONOMIKOAREN ALORREKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: GARAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA BERRIKUNTZA SAILA.

Ekonomiaren eta prestakuntzaren sustapen alorrean, Udalak, Plan Estrategiko honen indarraldian, ondoko diru-laguntza lerro hauek ezarriko ditu:

DIRU-LAGUNTZA LERROA.	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK.	URTEKO KOSTUA.	FINANTZAKETA:	DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.
HELBURUA: Urteko jarduera programa. ONURADUNA: Eibar Merkataritza Gune Irekia.	- Eibarko dendariak laguntzea kontsumoa sustatzeko jarduerak egiten, langileak prestatzen, belaunaldi-txandaketa egiten... Baita Eibarko dendak indartu eta finkatzeko interesekotzat hartzen diren beste jarduera batzuk ere.	- Eibarren merkataritza-jarduera lehiakorra eta dinamikoa finkatzea, beste herri handi batzuetara kontsumo ihesirik ez izateko eta beste herri batzuetako kontsumitzaileak herrira erakartzeko.	35.900 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Gabonetako argiak jartzea: ONURADUNA: Eibar Merkataritza Gune Irekia.	- Eibarko dendariei beraien jarduera ekonomikoaren sustapenean laguntzea urtean izaten den kontsumo-aldirik handienen (Gabonak).	- Gabon sasoiko kontsumoa sustatzea, Eibarko kaleak erakargarri bilakatuz, ez bertakoentzat bakarrik, baita beste herri batzuetatik datozen erosleei begira ere.	34.800 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Kontsumoa sustatzeko kanpainak. ONURADUNA: Eibarko Dendarien Elkartea.	- Eibarko dendariei laguntza ematea herriko dendetan kontsumoa indartzeko kanpainetan eta kontsumitzailearen fideltasuna zaintzen.	- Herriko dendarien eta Udalaren arteko elkarlana sendotzea Eibarko dendarien alde egiteko.	27.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Ekimena sustatzeko ekintzak. ONURADUNA: Ekingune Elkartea.	- Ekintzailetza bultzatu eta ekintzaileekin elkar lanean aritu, tokiko ekonomia indartzeko eta gaur egun dagoen krisialdiari aterabide bat bilatzeko.	- Eibarko ekintzaileen elkartearekin elkar lanean jardutea ekintzailetza sustatzeko aholku-jarduerak egiten.	9.920 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: "Toribio Echevarría" sarien antolaketa ONURADUNA: BIC GIPUZKOA BERRILAN SA.	- BIC BERRILAN entitatearekin elkarlanean aritzea sariok antolatzen. Sarion helburua, ikerketa- eta lan-ildo berriak bilatzea da, batik bat industriaren alorrean.	- Berrikuntza eta ekintzailetza lana indartea BIC BERRILANekin elkarlanean arituta, industria-esparruko hainbat alorretan eskarmentu handiko puntako enpresa-	35.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.

		zentroa baita.			
HELBURUA: Eskolaz kanpoko jarduerak egitea. ONURADUNA: Mogel Isasi Ikastola, BHI.	- Eibarko ikastetxeetako derrigorrezko eskolatze aldiko ikasleek har dezatela parte gelaz kanpoko eskola curriculumaren barruan sartzen diren jardueretan, behaketa eta arrazoinamendu enpirikoa indartzearren.	- Ikastetxeei eta familiei, gelaz aparteko ikaskuntza enpirikoa eskaintzea.	2.008 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Eskolaz kanpoko jarduerak egitea. ONURADUNA: Itzio, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua (DBHko Institutua).	- Eibarko ikastetxeetako derrigorrezko eskolatze aldiko ikasleek har dezatela parte gelaz kanpoko eskola curriculumaren barruan sartzen diren jardueretan, behaketa eta arrazoinamendu enpirikoa indartzearren.	- Ikastetxeei eta familiei, gelaz aparteko ikaskuntza enpirikoa eskaintzea.	3.045 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Eskolaz kanpoko jarduerak egitea. ONURADUNA: Juan Antonio Mogel ikastola.	- Eibarko ikastetxeetako derrigorrezko eskolatze aldiko ikasleek har dezatela parte gelaz kanpoko eskola curriculumaren barruan sartzen diren jardueretan, behaketa eta arrazoinamendu enpirikoa indartzearren.	- Ikastetxeei eta familiei, gelaz aparteko ikaskuntza enpirikoa eskaintzea.	3.986 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Eskolaz kanpoko jarduerak egitea. ONURADUNA: Arrateko Andra Mari ikastetxea.	- Eibarko ikastetxeetako derrigorrezko eskolatze aldiko ikasleek har dezatela parte gelaz kanpoko eskola curriculumaren barruan sartzen diren jardueretan, behaketa eta arrazoinamendu enpirikoa indartzearren.	- Ikastetxeei eta familiei, gelaz aparteko ikaskuntza enpirikoa eskaintzea.	825 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Eskolaz kanpoko jarduerak egitea. ONURADUNA: Urkizu ikastetxea.	- Eibarko ikastetxeetako derrigorrezko eskolatze aldiko ikasleek har dezatela parte gelaz kanpoko eskola curriculumaren barruan sartzen diren jardueretan, behaketa eta arrazoinamendu enpirikoa indartzearren.	- Ikastetxeei eta familiei, gelaz aparteko ikaskuntza enpirikoa eskaintzea.	1.300 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Eskolaz kanpoko	- Eibarko ikastetxeetako	- Ikastetxeei eta familiei, gelaz	846 €	Finantzaketa funts	Diru-laguntza mota:

jarduerak egitea. ONURADUNA: Amaña ikastetxea.	derrigorrezko eskolatze aldiko ikasleek har dezatela parte gelaz kanpoko eskola curriculumaren barruan sartzen diren jardueretan, behaketa eta arrazoinamendu enpirikoa indartzearren.	aparteko ikaskuntza enpirikoa eskaintzea.		propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	izenduna.
HELBURUA: Eskolaz kanpoko jarduerak egitea. ONURADUNA: San Andres ikastetxea.	Eibarko ikastetxeetako derrigorrezko eskolatze aldiko ikasleek har dezatela parte gelaz kanpoko eskola curriculumaren barruan sartzen diren jardueretan, behaketa eta arrazoinamendu enpirikoa indartzearren.	- Ikastetxeei eta familiei, gelaz aparteko ikaskuntza enpirikoa eskaintzea.	2.866 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Ekintzak EIBAR'S LAB esparru barruan. ONURADUNA: *Hirikiten* Elkartea.	- MAKERS proiektuaren lidergoa gazte talde baten eskuetan jartzea, betiko enpresaren alde ere jardunda.	- Gune autogestionatu bat martxan ipintzea, betiko fabrikazioaren eta fabrikazio digitalaren topagune ere izango dena.	19.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: BERREIBAR sarearen proiektu pilotua. ONURADUNA: *Biharrian* Elkartea.	- Ekintzaile hasiberrien talde batek industria-eraikin huts bat martxan ipintzea.	- BERREIBARek diseinatutako eredu teorikoa errepikatuko luketen esperientzia berriak sortarazteko eredutzat eta proba pilotutzat balio izatea.	13.800 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: Enpresei diru-laguntzak ematea erronka teknologikoei aurre egiteko.	Enpresei laguntzea, lehendik dituzten bitartekoei ahalik eta etekin gehien ateratzen.Prestakuntza-ekoizpena lotura hori sendotzea.	- Eibarko enpresekin elkarlanean aritzea erronka berriei aurre egiteko egiten ari diren bide horretan edo/eta dagoneko lortu dituzten lorpenak sendotzen laguntzeko	**36.000 €**	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: ebaluazio bakoiztua
HELBURUA: Diru-laguntzak 2tik 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei.	- Diru-laguntzak 2tik 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei. Laguntza hori Eibarko dendetan kontsumitzera lotutakoa da.	- Eibarko familiei eta bertako dendei laguntzea.	188.800 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: ebaluazio bakoiztua.
HELBURUA: Diru-laguntzak ematea 16tik 25 urte bitarteko ikasleei.	- 16tik 25 urte bitarteko ikasleek diru-laguntza bat jaso dezatela beren gastuei erantzuteko. Laguntza hori Eibarko dendetan kontsumitzera lotutakoa da.	- Eibarko ikasleei eta bertako dendei laguntzea.	70.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: ebaluazio bakoiztua.

HELBURUA: Laguntzak tokiko enpresen ohiko merkatuan kontratazioak egiteko (LANBIDE).	- Enplegua sortzea eta herrian enplegurik ez duten pertsonak kontratatzea.	- Kontratazioa bultzatuta, langabezia-tasa jaistea herrian.	83.962 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.

EUSKARA SAILETIK BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO

Euskara gaietan Eibarko Udalaren Planak indarrean dirauen bitartean honako diru-laguntza hauek bideratuko dira:

DIRU-LAGUNTZA LERROA	XEDEA	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
XEDEA: Eibarren euskararen irakaskuntzan aritzeko AEK-k garatuko dituen jarduerak finantzatzea ONURADUNA: Euskaraz koop-E	- Helduen euskalduntze-alfabetatze ikastaroen matrikula prezioak merkatzea.	- AEK-ko matrikulen kostoak jeistea eibartar gehiagok ikas dezaten euskara	24.900 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Izenduna
XEDEA: Tailerrak eta hitzaldiak antolatzea ONURADUNA: ...eta Kitto! Euskara elkartea.	- Eta Kitto euskara elkarteak antolatuko dituen tailer eta hitzaldiak finantzatzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskararen erabilera sustatzea	- Euskarazko tailer eta hitzaldi eskaintza handitzea.	5.000 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Izenduna
XEDEA **:** Txikitto aldizkaria argitaratzea ONURADUNA:...eta Kitto! Euskara elkartea.	- Euskararen sustapena umeen artean. Euskarazko irakurketa sustatzea. Txikitto aldizkaria argitaratzen laguntzea	- Lehen Hezkuntzako umeen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitzea eta gurasoek eta umeek euskarazko irakurketa konpartitzea	13.500 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Izenduna
XEDEA: Eta kitto astekaria argitaratzea. ONURADUNA:...eta Kitto! Euskara elkartea.	- Eta kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskaraz irakurtzea sustatzea	- Eibarko euskaldunak euskaraz irakurtzen ohitzea eta euskara gutxi edo ia ezer ez dakitenak ere euskarara gerturatzea	35.041 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Izenduna
XEDEA: Berbetan egitasmoa burutzea ONURADUNA:...eta Kitto! Euskara elkartea.	- Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren artean harremanak sustatzea eta euskaldun berriei euskaraz praktikatzeko aukera ematea.	- Euskaldun berriek euskaltegian ikasitako euskara kalean, familian, merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzea.	50.908 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Izenduna
XEDEA: Ahozko ondarea jasotzea, ikertzea eta hedatzea. ONURADUNA: "BADIHARDUGU" Deba Ibarreko Euskera Alkartia.	- Deba arroko eskualdeko euskararen euskalkia ikertzen eta hedatzen laguntzea. Euskararen euskalkiak jasotzea, ikertzea eta hedatzea sustatzea	- Ahozko ondarea jasotzea. Euskalkiak eta antzinako kontuak jasota, euskalkiak eta historia aztertu eta hedatzea	1.386 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Izenduna
XEDEA: umeen eta gaztetxoen bertso eskola kudeatzea ONURADUNA: Deba Beheko Bertso Eskola.	- Bertsozaletasuna sustatzea. Eibarko bertso eskolaren jarduera egitaraua burutzen laguntzea	- Eibarko ume eta gaztetxoen artean bertsozaletasuna handitzea.	1.735 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Izenduna
XEDEA: Herritarrei. UEUko	- Euskarazko formazioa	- Euskarazko formazioa jasotzea	1.500 €	Finantziazioa funts	Ebaluazio bakoiztua

ikastaroetara joatearren.	sustatzea UEUk eskainitako ikastaroak egiten dituztenei diru-laguntzak ematea	sustatzea eibartarren artean		propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	
XEDEA: Juan San Martin beka.	- Euskarazko ikerketa sustatzea. Juan San Martinek bere bizitzan landu izan zituen gaien gaineko ikerketak laguntzea	- Juan San Martinen pertsona omentzea eta bere ikerketa arloetan euskarazko ikerketak sustatzea	9.000 €	Finantziazioa funts propioekin egingo da, udalaren IV. atalaren kontura	Norgehiagoka

HIRIGINTZAREN ETA IRISGARRITASUNAREN ALORREKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA : HIRIGINTZA SAILA.

Hirigintzaren eta Irisgarritasunaren alorrean, Udalak, Plan Estrategikoaren indarraldian, ondoko diru-laguntza lerro hauek ezarriko ditu:

DIRU-LAGUNTZA LERROA.	HELBURUAK	EMAITZAK.	URTEKO KOSTUA.	FINANTZAKETA:	DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.
EMAITZA: Fatxadak berriztatzea eta igogailuak jartzea.	- Fatxadak berriztatzea eta igogailuak instalatu eta hobekuntza-lanak egitea.	- - Hiri-estetika eta etekin energetikoa hobetzea; bizitegi-eraikinetan irisgarritasuna ahalbidetzea.	200.000 €	Finantzaketa funts bereki edo propioekin egingo da aurrekontuko VII. kapituluaren kontu.	Zuzenean emateko diru-laguntza. Araubidea:. Ebaluazio bakoiztua.
EMAITZA: Auzo-igogailuak mantentzea:	- Herriko lekurik aldapatsuenetan edo zailenetan, udalak, irisgarritasuna errazteko, eraiki dituen auzo-igogailuen kudeaketa beraien gain hartzen duten elkarteei laguntzea.	- - Eraikitako auzo-igogailuen kudeaketa auzo elkarteen eskuetan lagatzea.	28.000 €	Finantzaketa funts bereki edo propioekin egingo da Aurrekontuaren IV. kapituluaren kontu.	Zuzenean emateko diru-laguntza. Araubidea: Ebaluazio bakoiztua.
EMAITZA: - Etxebizitza hutsak alokairu-merkatuan jartzeko ekimena sustatzea.	- Udalerriko etxebizitza hutsak alokatzeko laguntzak ematea, Eusko Jaurlaritzak helburu horrekin duen programaren osagarri.	Etxebizitza-multzoaren eraginkortasun ekologikoa eta soziala, hutsik dauden etxebizitzak alokatuta.	50.000 €	Finantzaketa funts bereki edo propioekin egingo da Aurrekontuaren IV. kapituluaren kontu.	Zuzenean emateko diru-laguntza. Araubidea: Ebaluazio bakoiztua.

GIZARTE EKINTZA ALORREKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: GIZARTEKINTZA SAILA.

Gizarte ekintzaren alorrean, Udalak, Plan Estrategikoaren indarraldian, ondoko diru-laguntza lerro hauek ezarriko ditu:

DIRU-LAGUNTZA LERROA.	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK.	URTEKO KOSTUA.	FINANTZAKETA:	DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.
HELBURUA: URTEKO JARDUERA PROGRAMA: IPURUAKO JUBILATU ETXEA. ONURADUNA: EIBARKO *JUBILATUEN IPURUAKO EGOITZA* ELKARTEA.	- Pertsona nagusien parte-hartzea eta integrazioa sustatzea. - - pertsona nagusiei gauzak egiteko gogoa piztea. - Pertsona nagusien arteko hartu emanak eta elkarbizitza sustatzea.	- Jubilatu etxeetako bazkide diren pertsona nagusiek parte har dezatela etxeak antolatutako jarduera gehienetan. - Jarduera horietan parte hartzen duten zaharrek pozbidea adieraz dezatela. - jarduera horiek lagun dezatela narriadura kognitiboko edo/eta fisikoko egoerak atzeratzen, edo, beharbada, neurriak aitzintzen.	4.860 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: URTEKO JARDUERA PROGRAMA: URKIKO JUBILATUEN ETXEA. ONURADUNA: URKIKO JUBILATUEN ETXEA.	- Pertsona nagusien parte-hartzea eta integrazioa sustatzea. - - pertsona nagusiei gauzak egiteko gogoa piztea. - Pertsona nagusien arteko hartu emanak eta elkarbizitza sustatzea.	- Jubilatu etxeetako bazkide diren pertsona nagusiek parte har dezatela etxeak antolatutako jarduera gehienetan. - Jarduera horietan parte hartzen duten zaharrek pozbidea adieraz dezatela. - jarduera horiek lagun dezatela narriadura kognitiboko edo/eta fisikoko egoerak atzeratzen, edo, beharbada, neurriak aitzintzen.	2.070 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: URTEKO JARDUERA PROGRAMA: “BEHEKO TOKIA” JUBILATUEN ETXEA. ONURADUNA: BEHEKO TOKIA ELKARTEA- URKIZUKO JUBILATU ETXEA.	- Pertsona nagusien parte-hartzea eta integrazioa sustatzea. - - pertsona nagusiei gauzak egiteko gogoa piztea. - Pertsona nagusien arteko hartu emanak eta elkarbizitza sustatzea.	- Jubilatu etxeetako bazkide diren pertsona nagusiek parte har dezatela etxeak antolatutako jarduera gehienetan. - Jarduera horietan parte hartzen duten zaharrek pozbidea adieraz dezatela. - - jarduera horiek lagun dezatela narriadura kognitiboko	4.770 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.

		edo/eta fisikoko egoerak atzeratzen, edo, beharbada, neurriak aitzintzen.			
HELBURUA: URTEKO JARDUERA PROGRAMA: UNTZAGAKO JUBILATU ETXEA. ONURADUNA: *UNTZAGA GUZTION ETXEA ELKARTEA* ERRETIRATUEN ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA.	- Pertsona nagusien parte-hartzea eta integrazioa sustatzea. - - pertsona nagusiei gauzak egiteko gogoa piztea. - Pertsona nagusien arteko hartu emanak eta elkarbizitza sustatzea.	- Jubilatu etxeetako bazkide diren pertsona nagusiek parte har dezatela etxeak antolatutako jarduera gehienetan. - Jarduera horietan parte hartzen duten zaharrek pozbidea adieraz dezatela. - jarduera horiek lagun dezatela narriadura kognitiboko edo/eta fisikoko egoerak atzeratzen, edo, beharbada, neurriak aitzintzen.	6.300 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: PERTSONA NAGUSIEN HAMABOSTALDIA ETA ZIBERGELA. ONURADUNA: BIZTU ELKARTEA, EIBARKO JUBILATUEN ETA PENTSIODUNEN KOORDINAKUNDEA.	-ezagutza zabaltzea eta Eibarko erretiratu guztiendako ekitaldiz betetako hamabostaldi bat antolatzea. Zibergela indartzea.	- hamabost egunez pertsona nagusiek har dezatela protagonismoa. --Eibarko jubilatu guztiendako topaleku egunak izan daitezela, Jubilatu Etxeetako bazkide izan ala ez izan. - ardatz bezala gai bat hartu eta gara dadila horri buruzko ezagutza. - jubilatuek teknologia berriak erabil ditzatela.	3.500 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: FAMILIA-HARRERA PROGRAMA. ONURADUNA: LUIS MARTINEZ GOROSTARZU	- Familia batean hartu duten pertsona nagusi baten gastuak eta hari laguntzekoak ordaintzea.	- Pertsona nagusi hori bere gizarte-ingurunean mantentzea berarekin senidetzarik ez duen familia batean zainduta.	6.83168 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: izenduna.
HELBURUA: GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEKO EKINTZAK.	- Emakumearen sustapenera zuzendutako jarduera gehiago izatea, emakumearen bizitzako alderdi guztietan berdintasuna lortzearren; emakumeen ahalduntzea ahalbidetzea; emakumeen bizi-kalitatea hobetu eta handitzen duten formazio, aisialdi eta denbora	- Generoaren ikuspegitik antolatutako prestakuntza-ikastaro eta jarduera gehiago antolatzea emakumeendako. Jarduera horiek udalerri barruan edo udalerritik kanpo garatuko lirateke, herriko elkarteekin elkarlanean arituta.	10.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.

	libreko jarduerak eskaintzea, eta genero-diskriminazio guztiak ezabatzea.				
HELBURUA: ELKARTEGINTZA ETA GIZARTE PARTE HARTZEA SUSTATZEKO EKINTZAK.	- toki elkartasuna sustatzea. - Eibarren eta Eibarren alde lan egiten duten elkarteetako programen eta jardueren bitartez, komunitateko garapenaren alde egitea. Elkarteek eskaintzen dituzten zerbitzuak eskaini, eibartarren ongizatean eta bizitza-kalitatearen mesedetan.	- elkarteek, pertsonendako jarduerak edo/eta intereseko zerbitzuak eskain ditzatela. - - elkarteen jarduerek eta programek hiritarren ongizatean eta garapean lagun dezatela. - - haien zerbitzu-eskaintzak udalerriko pertsonei lagundu edo/eta leundu ditzatela horien beharrak.	22.500 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.
HELBURUA: Drogamenpekotasuna/adikzioak tratatzeko zentroetara joaten diren pertsonendako garraio-laguntza.	- Droga menpekotasuna eta adikzioak kentzeko zentro batera tratatzera doazen pertsonei laguntzea.	- lagun dezala drogen eta beste adikzio batzuen mendekotasuna gainditzen hasteko eta tratatzeko.	3.600 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: ebaluazio bakoiztua.
XEDEA: Laguntzak ematea gizartean barneratzeko zentroetara doazen pertsonen joan-etorrietarako.	- Gizartean barneratzeko prozesuak erraztea, horretarako dauden zerbitzu espezifikoetara doazen pertsonei garraioa ordainduta.	- gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden pertsonak edo hortik kanpo geratu direnak aukera izan dezatela, gizarteratzeko Elgoibarko eguneko zentrora edo Donostian dauden gizarteratze-bitartekoetara joateko.	2.200 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: ebaluazio bakoiztua.
HELBURUA: Diru-laguntzak ematea baliabide ekonomiko urriko pentsiodunei eta langabetuei.	- baliabide ekonomiko urriko pentsiodunen eta langabetuen egoera ekonomikoa, neurri txikian bada ere, leuntzea.	- 150 euroko laguntza puntual edo jakin batekin leundu ahal dezatela duten diru-premia.	45.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: ebaluazio bakoiztua.
GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA.	- Garapenerako lankidetza programak antolatu eta garatzeko, Gobernuz kanpoko erakundeei edo GKEi diru-laguntzak ematea, munduan garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleriaren egoera sozioekonomikoa hobetzeko eta dauden desberdintasunak gainditzeko	- Laguntza jasotzen duten herrialdeetako toki garapena eta sendotzea. - Iparraren eta Hegoaren artean dauden ezberdintasunak gainditzea.	227.249,87 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.

	jardunak burutzeko.				
Elkartasun bekak.	- Elkartasun beka 2 ematea 20tik 40 urte bitarteko gazte biri dagoeneko garatuta dauden lankidetza proiektuetan edo GK erakunderen baten bitartez martxan ipiniko den proiekturen batean biharra egiteko.	- Eibarko gazteen artean nazioarteko elkarkidetza sustatzea.	3.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.
Garapenaren aldeko sentsibilizazio proiektuak udalerrian.	- Hezkuntza-ekintzen bidez herritarren interesa eta sentiberatzea piztea herrialdeen pobretuen errealitatearekiko, eta proposatutako ekintzok balio izan dezatela etorkizuneko lankidetza-proiektuetan parte hartzeko oinarritzat.	- Eibartarren artean, garapenerako nazioarteko lankidetzaren inguruan, gizartea eraldatzeko heziketa ezagutaraztea eta sustatzea.	6.000 €	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	Diru-laguntza mota: norgehiagoka.
Laguntzak ematea eskola jardueretarako DBE jasotzen duten familiei.	- Adin txikikoen parte hartzea b-ultzatzea eskolaz kanpoko jardueretan. - Adin txikikoen garapen psikosozialean laguntzea. - Aukera-berdintasunaren alde egitea.	- Baliabide ekonomiko gutxiko familietako adin txikikoek izan dezatela aukera eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko. - Jarduera horietan parte hartzen duten pertsonek adieraz dezatela beren pozbidea. - Adin txikikoek izan dezatela gizarteratzeko beste espazio berri bat.	20.000€ €	Finantzaketa funts bereki edo propioekin egingo da Aurrekontuaren IV. kapituluaren kontu.	Ebaluazio bakoiztua.